

# ESCUALDUN GAZETA.

VOL. I.

LOS ANGELES, ETAN EGUINA URTHARILAREN 16<sup>AN</sup>, 1886

No. 3.

## Segitu behar duta?

Berris ere behardut eta bortchatu ya nis cerbeiten erratera Escualden. Nahi dusia Escualdun Gazetac segi desan ala es? Lehemisicua niho- ren gustus eginuen, bainan yuanden astecua eta hau estut hala egiten ahal.

Nahi dauteiet erran sombat gosta- teen sautan Gazetaren imprimiteia bera, batere ene lana khóndatu gabe. Lehemisiena gusta isan sot \$29. De- nek badakigu lehemisiena bethi dela cariuena. Hemendie aiteina gusta isanen saut astian \$16. Hilabethian \$64.

Orai phentxa sasie Gazetaren egi- tea esten gostatcen. Asthe huntan behardut yakin hea nahi dusien Ga- zeta hartu edo ez.

Espanusie lagunteen esta posible ene adiskide maiteae nehundic segi desan. Sombeit badira ya abonatu direnac, bainan esta aski oraino ez hurbilteen ere. Han ene asken apela dut esta erremedioric.

Badakit nahi badusie Escualdun Gazeta isan sosteniteen ahal dusiela arras aise. Placer nuke segiteias bai- nan errotak behardu oliua egiltce- cots.

Campoco Escualdun horier emai- ten det gracia gehiago ceren denek espeitakite oraino Gazetarik baden, bainan hemen herrian siesten hoc denek badakisie secular yakitecots. Ser da astian pushka bat gehiago pagaturie ere? Nahi siste beste na- cione horiek baino gielatuyago isan? Nie uste es.

Ni, ene phartes ahalgheteen nis, nola estugun hombesteren artian Gazeta bat sosteniteen ahal. Ene lanarendaco deusie estut nahi; aski biltcen ahal badut imprimatciaren pagatceco. Saiste aste huntan eta abona siste. Aste huntan espaciste hildu, adios Escualdun Gazeta. Pas- cal Balladec, Juan Arrokkik, Martin Hirigoyenek eta Simon Glessek har- tuco dute sosa eta emanen tuste erreceitak. Hilabethian peso bat sarri isan dut ene Gazetaren precia baina iduritu sautei sombeiteri so- bera dela. Hilabethian peso bat ema- nes ere behartutisan 64 abonatu; eta hilabethian launa erreales behartut 120 abonatu.

Orai pentzasasie noisko behartu- tan 64 abonatu bildu isan. Dembo- rarekin menturas egiten ahal nuske, bainan arte huntan beharnuke nere sakelatic furnitu falta den sosa, eta hori estut egiten ahal, ceren esnis aski aberatx. Ene lanak ere uste dut balio duen cerbeit.

Erian dutan besala hau asken apela dut. Asthe huntaco imprimiteia eta

oro pagatus, gostatcen saut nere sakelatic \$61. Lehemisiena \$29; Bi- garrena \$16 eta hau hirugarrena \$16, total \$61. Aste huntan (...) ikhusten sanyaric, egun hotan errecibitu di- tutan sosac turnatuco ditut bere yaber, eta eginen dut Brok eta erra- nen dut, debruyek yuandesatela munduco lehemisico Escualdun Ga- zeta, California baino lekhu hoberat. Menturas beste norbeitek erreusitu- co du nic baino hobeki.

## Justicia.

Yuanden Larumbatian yuya Brun- sonec, condenatu isan du Carlos Cruz ehun pesoren multaren pagat- cera. Asken elektionetan, Cruz, arras moscarra sen eta hiru edo lau gison colpatu situen, puñalarekin. Dem- bora hartan laugarren cartiereco, bi conseiluco gisonec curitsen suten. Bat B. Cohn cen Democrata eta S. M. Perry, errepublicanua. Cruz, B. Cohnen favore cen eta eghinahala ari sen Cohnen lagunsen egun har- tan. Vocen condactcen hasi sirelaric Cruzeri iduritu omen sangon serbeit chi cana basela eta B. Cohneri nahi sutela vosac galasi. Cruz bere mos- corrian hasi sen salapartaca eta as- kenian puñala atheatu suen eta hiru edo lau gison colpatu. Estonatuyac dira han present siren gusiaco nola estzuten polisec han berian hil. Lau polisa omen siren bere pistoletac bandaturic tiratceco prest. Askenian polis batek bere makhilas yo eta aurdiki suen eta estecaturoc yuan suten preso; espalitz polisa gisa hor- tas baliatu segur hilen omen suten. Culpable declaratu du bere buruya yuyaren aiticinera yuandelarie. Yuyak eman daco sermon bat espeitu bere- hala ahatico. Nic estut ontxa harra- patcen punimendu hori. Ene ustes eta publicuaren ustes arras merkhe athea da. Crima hori egiten duen gisona beharda gehiago punitu. Yu- yac condenatcen ahal suen bortz urtheren presundis edo \$5,000ren multas. Errana da yuyak hein aise utci duela bere haurregatic eta ce- ren emastia berriki galdu isanes. Gisa bates ontxa da, bainan nic estut usthe justo den gison culpable den bat bestia baino diferentago tratat- cias. Orai duela sombeit egun beste muthico bat crima beraren daco igo- rri du yuya berac Islarat saspi urthe- ren daco. Beste Frances bat ere igo- rri du islarat sortei urtheren daco etche sombeit etan sarthuta serbeit eatciric. Denac culpable declaratu isan dira Cruz besala eta punisione handiagua eman dacote Cruzeri bai- no. Hori esta justo. Ene usthes den- nac beharluskete igual punitu. Ceren

Cruzek baitsituen sombeit adiskide, esta justu gisa hortan escapa dain. Cruz esta beste islarat yuandiren hek baino bathere hobia. Beste Isla- rat yuandiren bieci ere culpable de- claratu dira ustes hec ere Cruz besen aise atheraco siren baina trompatu dira. Nic estut sinheterik gison ba- ten multatcias. Gison bat culpable bada igor preso eta es multa. Multa- tcen bada familiac safriccen du eta preso sarhis hobekhi punitcen dira es eta multatus. Ni juya banitz secu- lan esnuke nehor multa, denac sar- nitio preso.

Cruz ere beharsuen ontxalas preso sarri sei hilabethes. Beste aldian casu eginen suen hobeki gisa hortan mul- tatus baino. Hobe isan du es nintcen ni nuya, ceren estcen egun carrican isanen. Hola da Californiaco justicia. Culpablana, eta punisione handiric meheshi duena, bethi punimendu guthiorekin escapatcen da.

Marche toujours en avant!

## Bandit Atrebituya

George Mallard isena duen gison bat Los Nietosetan eseatu da hango emaste baten virtu tutes baliatcera.

Emastiaren etchearen onduan pa- satcen ari selarie Mr. Venable eta bere emastiac aditu diuste oihu bat- su eta Mr. Venable yautci isan da carretatic eta emastiari erriendac emanic yuanda ikhustera hea cer othesen berri eta dembora berian harrapatu du Mallard emastiaren geinian borroca ari dela eta emastia sugurretaric odola darian ari sela egin ahala bere afera egin nahis. Ma- llard, berehala escapatu isan da Puenteco estacionerat nun treinian sarthu isan baita. Nietosetaco constabliac yakin orduco segitu isan du eta Pomonan harrapatu du eta peso baten corda eosi eta ekharri du be- rris gielerat. Nietosetan behardute lehenic yuyatu. Hobeki eginen du culpable declaratcen bada, Cruz bes- sen merke nahi badu athera. Es omen da escapatcen ahal ceren cri- man hatchemana isan da. Arras lan- yeros da oraico egunetan emastekien bakharric ustia. Hombeste bandit tcar horietaric bada orai: ser nahiren egitico capable baitira. Yatera eman eta ere estira content oraino behar dute geineateco desirac pasatu. Orai duela sombeit egun gisa bera egin dute herrico emaste batekin. Afera ishil daucate presentian egiliaren menturas aiseago harrapatceco.

Guardiatcen diuste senharren ore- nac nois diren eta yakitearekin te- noriac, baliatcen dira ocasiones. Oraicua urkhatu beharlukete, beste-

nas berris ere beste sombeitek gausa bera eginen du. Gabas leihuac be- harlitaske serratu ontxa, ceren fran- go aldiz etchen barneco yendiac lo- kharrastén dituste lokhartceco erremadina sarhiric. Seculan es eman yatera uste badusie bandit ho- rietaric direla, ceren bati emaiten badusie, egun gusies yinen dira eta estute bakeric emanen. Herrico pre- sundia geineraino bethia da urde, afer, bandit horietas. Presundiaren lau aldiz bethetcecuca balitake oraino carriketan polisac egin balesa bere devoira. Casu emasie emastekiek!

## Pistoleta eta Ganibeta.

Yuanden Astelehen gabian bi Mexicano bere afariaren mahian es- pero saudelaric. San Gabrielen, Mrs. White de Lastra, isena duen emaste baten ostatuyan, Rafael Higuera ise- na duen Baja Californiaco Mexicano bat sarthu da ostatuyan eta copa bat café galde egin du. Rafael (...) son hetaric batec eta bieci lehenago ba- suten cerbeit dificultate elgarrekin isanic eta juchensecuca. Higuera erran daco mahico, Alviso, isena suen hetaric bati, campoan basela norbeit ikhusi nahi suena eta Alvi- sok sinhetci isan du Higuera eta abiatu isan da camporat eta dembora berian tiro bat tiratu isan daco Hi- guera Alvisori, bainan estu causitu. Etcheco anderiac eta bere muthi- cuac icusi dute Higuera lehemisico tiruaren tiratcen. Bigarrena tiratu duelaric estute ikhusi ceren campo- rat escapatu siren beldures. Ikhusi diuste Alviso eta Higuera gero elga- rri lothuyac baina estute ganibetic ikhusi bat es bestiaren escuyan. Is- tampaten buruyan arribatu isan dira ausoco bi gison, Brown eta Laserre eta oraino borrocan ari siren biac eta separatu diuste. Separatuta be- rehala Higuera erori da lurrerat odo- ladarian bihotzeco ondotsutic. Estu declaratu nahi isan nola edo noc colpatu duen, eta gabasco sortzi oren etan hil isan da. Alviso preso hartu isan du Constable Fuller isena duen batec. Juradoac Alviso culpable hatcheman du. Higuera arras erre- putacione tzara suen eta Baja Cali- forniatic yina sen escapaturic bere koinata hilic.

Juraduac ere estu sensu handiric behar isan Alvisoren culpable decla- ratceco, ceren probac arras clar siren bere buruyaren defendatceco hil duela. Alviso eta bere launa mahian sauden afariaren beha eta estsuten nehor sherkatcen eta hala ere culpa- ble hatcheman dute. Cer nahi dusie liburuyac hala badio?

# ESKUAL-HERRIA

Berriketari Eskualduna aguertzen dena larumbate guziez.

LIB 2a- Nº 44

LOS ANGELES, CALIF., UZTAILAREN 29a 1894a

PREZIOA: 5 SOS

## Eskual-Herria.

The only Basque newspaper in North America published in Los Angeles, California, every Saturday.

J.P. Goytino, Editor  
330 New High Street

Entered at the Post Office at Los Angeles, Calif. as second class matter.

## Eskual-Herria.

Le seul journal basque publié dans l'Aerique Septentrionale, paraissant à Los Angeles, Californie, le samedi de chaque semaine.

## Eskual-Herria.

El unico periódico bascongado publicado en la America del Norte. Parece en Los Angeles, California, el sabado de cada semana.

J.P. Goytino, Director  
330 Calle New High

## Eskual-Herria.

L'unico giornale settimanale Basco publicado in America Settentrionale. Esceogni sabato in Los Angeles, Cal.

J.P. Goytino, Editore  
330 V a New High

## Eskual-Herria.

Die einzige Baschische Zeitung in Nord-America, publicirt in Los Angeles Cal; jeden Samstag.

J.P. Goytino, Redakteur,  
330 New High Str.

## ESKUAL-HERRIA.

California-ko eta Estado-etako Eskualdunen Berriketaria

J.P. GOYTINO.....EGUILEA.  
330 New High Street.....Los Angeles, Cal.

## PAPER HUNEN PRECIOA

### Ameriketean

\$3.00.....Urtheko  
\$2.00.....hirur Hilabethendako

### Frantzian

15 libera urtheko,  
Hastean pagatzen da.

## RED STAR LINE

(Izar Gorria)

New Yorketik Havre-rat yohan diren bapurrak.

Atheratzen dire New York-etik eta Havre-etik larumbate guziez.

Agente Nausia: Los Angeles-etan.  
J.P. Goytino,  
330 New High karrika.

## COMPAGNIE GENERALE TRANSATLANTIQUE

New Yorketik Havre-rat yohan diren bapurrak.

Atheratzen dire New York-etik eta Havre-etik larumbate guziez.

Agente Nausia: Los Angeles-etan.  
J.P. Goytino,  
330 New High karrika.

## Compagnie Bordelaise

New-York-etik Bordalerat yohan diren bapurrak.

Agente nagusia Californian:  
J.P. Coytino  
330 New High karrika.  
Los Angeles, Cal.

## Carnot Presidenta

Italiano batez asasinatua!

Frantziaren Dolua!

### ANARKISTA BATEN OBRA

Yoanden igande arratsean, Lyon-eko hiri ederrean, Mr. Francois Marie Sadi-Carnot, Frantziako presidentia, asasinatua izan da karrikan, teatroat yohan zelarikan.

Astelehen goizean, oren bat laurden gutitan yaun presidentak bothatu du bere azken hatsa.

\*  
\*\*

Krima bat izigarria kometitua izan da, Yondoni Yoaniren egunean Lyon-eko hirian. Hiri hortarat yina zen Mr. Carnot presidentia Exposizionearen bisitatzerat. Arratseko 9:25 minutetan, yaun presidentia igan da kaleza batean teatroat yoaiteko harren ohoretan emaiten zuten errepresentazione baterat.

Karrika guziak yendez estaliak ziren yaun presidentari ohore egiterat yinak. Noiz eta murde Carnot-en karrosa pasatzen zelarik Rue de la République gizon gazte bat aintzinatu da karrosari buruz eta banketaren gainean igan ondoan athera du puñal bat eta presidentia yo.

Elektrika argian kanibeta disdiratu da eta laster yendea ohartu da zer gerthatu zen. Murde Carnot erori da flakaturik: eskubat zaukan bihotzaren gainean, puñala sarthu lekhuar. Mr. Rivaud, Lyon-eko prefetak -zoina yarria baitzen yaun presidentearen ondoan- yo du bisaian asasinoa eta bothatu du lurrerat.

Berehala yende ostea oihuka hasi da: "Le Président est assassiné: Mort a l'assassin! eta laster asasinoa arrastatua izan da. Ez baliz polizia fite yin gachtagina han zatikatua gelditu behar zen.

Yaun presidentia berehala itzuli dute Prefectura-ra eta midikuak deithu; hunen kondizioea ikhushi pundutik sendatzaileek erran dute ez zitakela heriotzeari eskapa.

### TEATROAN

Teatroa yendez berthea zen eta Lyon-eko zozietate ederrena han zen bildua. Denak estonatuak ziren zoin berant heldu zen yaun Presidenta noiz eta gizon bat sarthu delarik barnerat oihu egin du: "Le Président a été assassiné!" Yende guziak harritu dire; emazteki batzu flakatu dire eta gizon gehienak asaldatuak ziren.

Aphur baten buruan aghertu da yaun Prefeta eta orduan yendeak pensatu du aditu oihua gezurra zela. Oihu egin du: Vive Carnot, vive la Républiuy!

Bainan Prefetak laster ihardetsi du: "Ez oihurik egin: yaun presidentia asasinatu dute!"



Marie-François-Sadi Carnot

FRANTZIAKO ERREPUBLIKAREN PRESIDENTA.  
Limoges-en sorthua 1837an; asasinatua Lyon-en, Erearoaren 24an 1894an.

Berri trichte hori aditu ordukotz yendeak oihu egin du batean: "Mort a l'assassin!"

Erdi nigarrez yaun Prefetak segitu du: "Errepublikako karrikan pasatzean, gachtagin batek, petitione bat presentatzeko estakuluan asasinatu du murde Carnot."

Hemen berriz oihuak abiatu dire gorago: Mort a l'assassin! Vengeance! vengeance!

Hitz ikharagarri horiek akhabatu pundutik teatroa hustu da eta yende guzia hedatu da karriketan.

### PRESIDENTEAREN AGONIA

Yaun presidentaren kolpea ikhushi ordukotz midikuek erran dute operazione bat egin behar zela. Dr. Olyer-ek miatu du sahetseko zauria. Orduan murde Carnot-ek erran du erdi flakaturik: "Oh! comme vous me faites mal!"

Denbora berean ohartu dire, midikuak, odolez husten ari zela eria: gibel bat zilhatua zuen aldebatetik bertzerat.

Gauerditik lekhorra, Lyon-eko arkaphezpikua ethorri da Presidentari azken sakramenduen emaiterat. Gauerdia eta erditan eman dio anuntzioa. Murde Carnot ez zitaken mintza gehiago. Bizkitartean erran du bi aldiz arkaphezpikuari: "Je m'en vais!"

Dr. Poncet-ek erran dio orduan: "Zure adichkideak hemen dire, yaun Presidenta! eta eriak ihardetsi dio: "Untsa plazer dut horien ikhustea!"

Yaun Presidenta agonian hasi gabe mundua bildua zen Prefekturaren aintzinean zerbait berri yakin nahiz. Poliziak bazuen aski lan kuriosak ezin gibelaraziz.

Oren bat laurden gutitan, murde Carnot-ek botatu du bere azken hatsa.

Presidentak azken hatsa botatu pundutik, Mr. Dupup. Minich-troen presidentia itzuli da Pariserat berri tchar hori Senaturreri eta Deputatuei anonatzeko.

### BERRIA PARISEN

Laster yakin dute berri trichte hori Parisen. Madama Carnot, yaun presidentaren andreak yakin orduko abiatu da trein espres batean Lyonerat: bidean erran diote nola senharrak bothatu zuen azken hatsa.

### ASASINOA

Yaun Presidentaren asasinoa deitzen da Cesare Giovanni Santo. Italiano da!

Gazte zelarik, kasik haurra, abiatu zen anarkisten bilkhuren segitzen. Ez du 28 urthe baizik eta bizarra ez du oraino abiatua. Cette-ko hiritik yon da Lyonerat murde Carnot-en asasinatzerat. Igande goizean arribatua zen Lyon-en.

Preso altchatu dutelarik erran du anarkista zela bainan ez du aithortu nahi izan zertako hil duen Errepublikaren presidentia.

### ITALIANOAK FRANTZIAN

Hiri handi guzietan, Italiano en etcheak hetsiak dire. Lyon-en Italiano kafé guziak chinchilikatuak dire. Dijon-en poliziak aski lan izan du ezin Italianoak defendatuz. Bordalen gauza bera gerthatu da. Marseille-ko yaun merak galdatu du, fagore gisa, yendeeri ez Italiano en athakatzea. Parisen iduri dute zentzu gehiago badutela: oraino ez da.

### ENTERRAMENDUA

Murde Carnot ehortzia izanen da bihar, igandean.

Yaun presidentaren gorputza arribatu da Parisen, astearte arratsaldean, hirur orenetan. Berehala yon dute Elysée-ko palaziorat eta ezarri dute kaperata batean dena beltzez beztitua. Andreak ekharri du gorputza Pariserat.

Murde Carnot ehortzia izanen den Panthéon-ean bere aitaso, Lazare Carnot-en hobian, Victor Hugo-ren ondoan.

### ERRESPETUAK

Europa-ko Korte guziek igorri dituzte bere errespetuak Madama Carnot-i erroteko parthe hartzen dutela Frantziaren doluan. Angleterrako Korteak dolua hartu du eta Alemaniako Enperadoreak igorri du letra bat arras hungigarria president-oiharen andreari. Aita Sainduak ere helarazi ditu bere konsolamenduak alharguntsari eta Frantziako Gobernamentuari. Erran gabe doha gure Presidentak ere igorri duela depecha eder bat Madama Carnot-i.

### PRESIDENT BERRIA

Yoanden asteazken arratsaldean, legeak manatzen duren bezala; Frantziako Senaturrak eta Deputatuak bildu dire Versailles-en murde Carnot zenaren ordainaren izendatzeko.

Mr. Challemeil-Lacour, Sentaturren presidentak, ideki du bilkhura hori.

Lehen botzkaldian Mr. Casimir-Périer, Ganberako presidentia hautatua izan da kargu handi horrentzat 451 botzez 853 botzen gainean.

Mr. Jean Casimir-Périer, sortua da Parisen 1847an. Horren aitasa Louis-Phillipe Erregearen Minichtroa zen eta aita Thiers presidentia zenaren minichtroa. Mr. Floquet-en ordre deithua izan zen Ganberako president eta berriketan oraino Lehen minichtro zen.

Arras aberatsa da eta harren andrea, Frantziako familia handienetik atheratzen da. Ezkondu aintzinean deitzen zen Mademoiselle de Ségur.

Eskual-Herria askekatzen ari da berriz. Argi eta garbi. Kuztatuza Sarriaren Ohoetako Aipamenen agerari gisa bereziki du. Andoango Urtak. Horretarako, Eskual-Herrian zozkatu zombak 1894.etik 1897. en birarekin. Testua bereziki Joseba Eskari jaunak eskuzkoan idatzi du. Eskual-Herrian Aizue hiritik gorderik duadetak haliatu ditugu. Jatorriko testua idatzeko gainean zozkatu zombak 1894.etik 1897. en birarekin. Testua bereziki Joseba Eskari jaunak eskuzkoan idatzi du. Eskual-Herrian Aizue hiritik gorderik duadetak haliatu ditugu. © Andoango Urtak. Eskuzkoan idatzi du. Eskual-Herrian Aizue hiritik gorderik duadetak haliatu ditugu. Inprimaketa: Iñigo Gurrutxaga Zerbitzuak. Donostia.



Kristobal Kolon,  
Amerikaren aitari!

Eskuinean mendiak, ezker  
itsasua, Arroka bat oinetan, Gai-  
nean zerua

Kolon zuri Eskuaras kantatzera  
noa.

(...) nezazu, ene Yangoikoa!  
Herriberri zabilan, bihotza  
galdua.

(...) "choroa" denetan deitua.  
Eta zuri zer dugu, guizon han-  
dia:

America guzia, mundu bat berria.  
O zer edertasuna eta zer gloria!  
Agur urrunetikan, agur, Espa-  
nia

(...) bazaude ere naygabez asea  
Zure fama zaharra da parega-  
bea.

Ongui merechi dugu, Nazio  
noblea.

Munduko herrirok, agur egui-  
tea.

(...) ere lehengo dirua

Oberez bizi zare ingururikatua.

Entzuten dudalarik bagaren  
errua.

(...) mendietako gizen chistua.  
(...) naiz, Kolon, Elizak diola  
(...) , Zeruan zaudela.

J.P.GOYTINO.

Isla (...). Abeztuaren 5a.

Norat Goazi?

Aste huntako depechak ekharri  
gaituzte berri tcharak Frantziatik.

Aipha dezagun lehenik Saint-  
Denis-eko Konseilua. Herri hori-  
ietako hil-errian bazen kuruzefika  
bat superra Durant famatuaz  
eguna eta estimatua zena 25,000  
libera. Azken bilkhuran conse-  
iluak manatu du sal dadin gauza  
eder hori 1,000 liberetan. Nor-  
beit erreklamatu delarik, Konse-  
ilu pullit hartako membro batek  
errandu: "Sal zazue Kurutze hori  
"1,000 liberenzat, 500 edo 100  
eta "ezbaditake sal emazue urrik  
"edo botha zoko baterat:bertze  
"errigoneko seinalekin". Solas  
izigarri horier zombait arnegatu  
eskuz yoka abiatu dire, erraiteu  
zutelarik: "Ezeza dezagun Erre-  
ligionea! Biba socialisma! Biba  
Saint-Denis-eko Konseilua."

Zer pensaten ahal dute gure  
herriarrok Protestantek leitzen  
dituztelarik holako berri itsu-  
siak? Eta gauza izigarri hori guer-  
thatu da Frantziako Patroin Sain-  
duaren herrian? Norat debru  
doazi Frantziar?

Cocarde deitzen den paper ba-  
ten eguilea, Parisen, Mr. Ducret  
condenatua izan da urthe baten  
presondeguiat eta harren lagun  
moro batek, atcherman ditu 3 urthe.

Kolera.

Eritasun itsusi hori ari da azkar-  
ki Russian. Hemezortzi proben-  
zietan izan dire, aste batez, 496  
kasu eta 136 heriotze. Hamabortz  
egunez Pedolian 1,400 presuna  
eri izan dire eta 500 hil dire.

Roumaniatik Malan arribatu  
den unti batek, astelehenean,  
ekharri du berria kolera abiatu,  
dela Erresuma hortan. Biayan be-  
rean eta untiaren gainean izan  
dire hirur kasu eta heriotze bat.

Aboztuaren 8an bederatzai pre-  
suna hil dire Naples-en kolerare-  
kin.

New York-en ere eritasun itsusi  
hori hasi da. Bi kasu guerthatu dire  
Swinburn Island deitzen den isla  
tipi batean emigranten artean bai-  
nan bi eriak ez dire oraino hil.

Yinkoak beguira guitzala zori-  
gaiz izi garri hortarik.

Triztezia.

Gure leitzaleek ikhusiko duten  
bezala, urrunago, Tehachapiko  
berrietan, ez du iduri segurki ne-  
gozioak ongui doatzila. Cameron  
deitzen den herri tchar batean,  
burdin bidearen ondoan, Kern-  
eko Kondadoan, eta aitzineko  
urthetako usaiaren arabera, gure  
Eskualdun artzain andana bat  
bildu da ardiaren ilearen motz-  
arazteko. Baianan lan horiri lo-  
thuko baino lehenago, yakin dute  
ilea ez zitakela sal aurthen eta ez  
zuela balio sos baten chautchea  
ardien buruzteko. Eta orduan  
utzi dute lau hori heldu den pri-  
maderaino penzatzuz, dembora  
aphur hortan, negosioak puska  
bat piztuko direla eta legue be-  
riek ilearen prezioa azkartuko  
dutela.

Badugu beldurra, bizkitartean,  
aurthengo urthea hala hola  
yoanen den, malurrak eta tris-  
teziak erainez bere bidean. Con-  
gress-a bildu da yoanden astele-  
henan bainan legueguilean  
dembora guziak hartua izanen da  
zilarraren kestioneaz. Eta ilearena  
noiz yinen da?

Hori hehork ez dakit.

Itzuli.

Hon. Patrick Egan, Estados-  
Unidos-etako Minichetro izana  
Chili-an itzuli da New York-erat  
aste huntan.

Yaun horrek, Chili-an egonden  
den demboran frango trakasu  
eman du bere Gobernamentuari.  
Ez du Chili-ko Gobernamentuak  
hainaz erregretatuko.

Presidentaren Letra.

Morde Cleveland, gure Presi-  
denteak igorri du Congess-ari  
letra bat, aste huntan, zointan  
mintzo baita urrearen fagoretan  
zilarraren kontra. Nahitez Cali-  
forna-ko eta Nevada-ko De-  
mokrata ez dire sobera kontent  
izanen Presidentaz, bainan nola  
hautatu baitute eleksione egu-  
nean, bere gustuko guison bat,  
ez lukete orain alegia ez kontent  
egin behar.

Aspaldi erran dugu eta berriz  
erraiten dugu Administrazione  
democraticak Erresuma igorriko  
du errekarat.

Yo Hor.

Emaztekiak, orok badakigun  
bezala, denetan behar dire sal-  
satu gure Erresuman! Chikago-  
ko Esposizionea ez da zorigaitz  
hortatik eskapatu! Badire andere  
batzu Ladies Managers deitzen  
direnak eta denak azpiz goiti  
emaiten hari dituztenak. Beren  
artean kasailatzen dire Buha-  
miak bezala eta aste huntako bil-  
khuran kolpeka arizan dire. An-  
dere luze batek ileak errotik athe-  
ra omen ditu kontrario bati eta  
bertze batek begui bat kasik le-  
hertuko lagunt bati. Madama ho-  
riek hobeki eguin lezakete beren  
etchetarat yoaita eta uztea sen-  
harrak Esposizionea aferez oku-  
patzea.

## Herriko eta Inguruetako Berriak

"Mafia othe da?"

Yoan den astearte arratsean,  
zazpiak eta erdietan, laur Italiano  
yarriak ziren mahain baten in-  
gurian, Monrovia-ko herian, gure  
Kondadoan, afaiteko. Betbetan  
tiro bat aditzen da eta Pedro Lu-  
sardi, Italiano hetarik bat oihuka  
abiatzen da erraiten duelarik  
"Yinko maitea hil naute"

Eta guizona lurrerat erori da  
flakaturik.

Berehala etcheko yendeak baz-  
terren miatzen hasi dire bainan  
ez dute asasinoa atcherman.

Pedro Lusardi doidoietan etho-  
rria zen etche hartarat afaiteko  
eta polizia segur da asasinoak ez  
zuela hura hil nahi bainan bai  
etcheko nausia Randisi deitzen  
dena.

Arratseko hameka orenetan  
Lusardi-k bothatu du azken hatsa  
eta hortzi dute biharamunian.  
Duela hirur urthe yina zen Cali-  
forniarat familia bat utzirik Ita-  
lian.

Santa Monica.

Santa-Monica-k Monrovia-k  
bezala, izan du aste huntan bere  
asasinatzea. Quon Yek, Chino  
churitzaille bat, hila atzemanan  
da yoanden ortzegunean. Quon  
Ab Yen bertze Chino batek hil  
omen du bainan oraino asasinoak  
ez da atzemanan izan.

San Bernardino.

San Bernardino-ko Supervisor-  
rek eguin dute noizpeit legue on  
bat. Yoanden astean, ordenanza  
batez hitz eman dute 20 sos hil-  
tzen diren conejo eta herbi beha-  
rrienzat.

Coyoteak ttipituz gueroztik  
animale tchar horiek arras nau-  
situ dire bazterretan eta kalte  
gohorak eguiten dituzte kam-  
poetan. Beharba legue horrek  
izituko ditu eta ihes igorriko.

Yustizia zozoa.

Horacio K. Hamilton, berriki-  
tan bi artzain frantsesi tiroka  
haritzan dena pasatu da astele-  
henian yustiziaren aitzinean.  
Ganchou, artzain kolpatua, min-  
tzatu da lehenik eta erran du nola  
Americanoak galdatu zion 5 peso  
ardien etchearen ondoan pasa-  
tzeko eta nola hitz bat erran gabe  
tiroka hasi zen. Bala bat pasatu  
zaion sabelan parezpar.

Bertze hirur artzainek erran  
dute gauza bera bainan Jurado-  
ak ez du Amerikanoa baizik si-  
netsi.

Hamilton-ek ez du ukhatu kol-  
pe tzarra bai tzarra bainan erran  
du, abilki artzainek hil nahi zutela  
nabal batekin eta hortako tiroka  
hasi zela.

Jurado-ak egon dire egun bat  
elgar aditu gabe. Yuyek erre-  
mersiatu dituelarik 11 Hamilto-  
nen fagoretan ziren eta bat kon-  
tra.

bainan Hamilton ez da hola  
libro izanen eta pasatuko da be-  
rriz Yustiziaren aitzinean.

Esperantza dugu bigarren al-  
dian, artzainek frogatu dutela  
guezurrez mintzo dela asasino  
tzar hori.

## P. Etcheverry eta Ca. Edari Komerzantzak

Arno eta likur herrikoak eta  
estranyerak

California-ko arnoak

No. 628 Bortzgarren Karrikan  
G eta H artean

SAN DIEGO.....CAL

DR. L. ZABALA

Eskualdun midikua

Parisen eta Madrillen errezebitua, frantses

zozietateko midiku izana.

Erien { 11 orennaterik eguiditaino  
tenoreak { 2 orennaterik 4 etarat  
7 orennaterik 8 etarat

Bisituegia: 310 1/2 N. Main Karrika,  
Los Angeles, Cal.  
Telefona No. 278

Botika Frantsesa.

Eskualdun Botikarioa  
Violé eta Lopizich, nausiak.

Erremedio onak eta merkeak  
Eriak urrik tratatzen dire.

503 N. Main Karrikan,  
Vickery Block. Los Angeles

PIUTE HOTEL

Ostatu Eskualduna

Agustin Young.....Nausia

Arno, zerbeza eta edari hoberenak

Kosina Eskualduna  
Kambara ederrak eta garbienak

TEHACHAPI  
KERN CO., Ca.

J.P. Goytino.

Los Angelesetako Kondadoko

Notario Publikoa

Testamentuak, kontratuak, salpenak eta  
leguezko paper guziak eguinak dembora  
laburrez

Korteko eta tribunaleko interpreta.

430, New High Karrika, Los Angeles

IBERIA HOTEL

Kern Kondadoko Eskualdunen  
biltzar-lekhua

Kozina eskualduna, kambara  
ederrak eta establia handiak

F.M. Noriega eta Cia  
Nausia

KERN CITY.....CALIFORNIA

LEON ESCALLIER

500-502 Aliso Karrika

Telefona.....003

California behereko Ajento  
bakarra ardiaren zarnaren senda-  
tzeko erremedio

Hayward's Sheep Dip  
deitzen dena.

Erremedio hoberena eritasun  
horrendako.

Artzainei igorriko dat behar  
diren direksioneak eta erreko-  
mendazionezko letrak.

Ezkontza.

Yoan den ortzegun arratsaldean  
LAURENT PILARIO eta MA-  
RIE ERRECA esposatu dire gure  
herrian.

Bizi luze eta uros bat desiratzen  
dugu yaun andre esposeri.

## Herriko eta Inguruetako Berriak

Herritarrei

Paper hau errezebitu nahi ez  
duten Herritarrek aski dute  
Postan errefusatzea eta Postak  
berak abisatuko gaitu hekien na-  
hiaz.

Paper hunen pagamendua igor-  
tzen ahal du errechenik Postaz,  
Wells Fargoz edo Bankoen me-  
dioz.

GREVA

Zonbeit egun hautan gure Erre-  
sumako burdin-bide-guziek alfer  
daude. Enpleatu guziek lana  
utzi dute eta grevan paratu. Le-  
henbizikorik burdinbedetako  
langileak "grevan" paratu dire  
Pullman Palace Cars deitzen  
diren karroentzat. Adiarazi dute  
Konpani handieri ez zutela trei-  
netan Pullman karro horiek har-  
tuko horien yabeak bere langi-  
leen soldata emendatu artino.  
Orduan Santa Fe Konpaniak ka-  
satu ditu bi langile New Mexi-  
co-ko aldean zeren ez baitzuten  
Pullman karro bat trein bati  
lotu nahi. Berri hori aditu duten  
pundutik hamar mila enpleatu  
erretiratu dire, denak batean.  
Geroztik hunat Santa Fe-ko  
treinak ez dabilta batera eta  
ez dakigu noiz abiatuko diren.

Gauza bera gerthatu zaio  
Southern Pacific Konpaniari.  
Bi langile kasatuak izan dire  
Oakland-en, San Francisco-ko  
ondoan zeren ez baitzuten nahi  
lotu bi Pullman karro Los An-  
geles-etako trenari. Berri hori  
hedatu den pundutik Konpania  
hortako enpleatu guziek utzi  
dute lana debalde eta trenak  
non nahi geldituak dire.

Hortakotz, nola bertze mun-  
duko pharte guzietarik arrunt  
separatuak baikira, "grev" hori  
esker, gure irakhurtzaileak ez  
dire estonatu behar ez balin ba-  
dute bere tenorean paper hau  
errezebitzen. Badu yadanik lau  
egun ez dugula kanpoko letra  
choil bat errezebitu: hortakotz  
ez dugu aste huntan depechaz  
yin diren berriak baizik emanen.

Ez dezakegu hobekiago egin!

OTHOITZAK

Bihar gure hiriko Frantsesek  
kantaraziko dute "Libera" bat  
Katedralean, arratsaldeko 3 ore-  
netan, Murde Carnot presiden-  
taren arimaren fagoretan. Mgr.  
Montgoniery, gure aphezpiku be-  
rriak emanen du predeiku bat  
erraiteko zer pharte hartzen duen  
gure Erresumak Frantziaren do-  
luan. Soldado frantsesak yoanen  
dire denak Katedralerat.

ARDIAK

Yoanden larunbatean Alamito-  
setan, Mr. Juan Erramuspe-  
ren ardiak salduak izan dire 42 sos  
bakhotcha. Baziren 1,800 ardi  
eta bildoch. Bi zaldi eder saldu  
dire 7 eta 11 peso.



### Asteko Berriak

#### Depechak

MADRID, Abendoaaren 29a  
General Weyler-ek argitarazi du letra bat McKinley-ren kontra. Letra hori publikatu duten berrikerari guziaz pertseguituak izanen dire Espainiako Gobernamentuak.

Ofizialek ez dute helarazi nahi izan letra hori Erreginari.

PARIS, Abendoaaren 30a.

Panama-ko eskandaletan halatsatu ziren deputatuak eta senaturrak akituak izan dire Paris-eko Tribunalak. Mr. Andrieux, Poliziako Prefeta izanak eman du bere lekhukotasuna erranez egiazko faltadunak ofiziale handiak zirela eta Gobernamentuak lagunduak zirela presondegiaren eskapatzeko.

HABANA, Abendoaaren 30.

Berrikerari Amerikanoen korrespondentziak itzultzekoak dire denak Cuba-tik Estados Unidos-erarat. Hortarik ageri da autonomiak arrunt hil duela Cuba-ko gerla. Insurgentek orai ez dute arrazoinik gehiago pelezteko.

\*\*

Mariskal Blanco-k ordrea eman du Habana-ko portua idek dadin estranyerako marchandizeri-Portu hori hetsia izan zen 1896ko Maiatzaren 14an Weyler-ren ordrez.

SHERBROOKE (CANADA.) Abendoaaren 30a.

St. Charles Semenaria Handia erhe da egun, ecludiant gehienak baxhantzetan zielarik. Galtzeak es timatuak dire 25,000 peso.

NEW YORK, Abendoaaren 30a.

General Maximo Gomez Cuba-ko Errebolatuen aintzindari-nausiak adierazi du adichkide bati ez duela autonomia onhesten, nahi duela Independentzia osoa eta Cuba-ko irla ez dela sekulan Estados Unidos-eri yuntatuko. Berri horrek hoztu ditu Amerikanoak.

LONDON, Abendoaaren 27a

Anglaterrako gizon famatuenak. Hon. William E. Gladstone, Lehen Minichtro izanak bethe ditu egun bere 88 urtheak. Azken 65 urthe hautan, Hon. W.E. Gladstone okupatu da Anglaterrako aferez: deputatu deitua izan zen 24 urthe zituelarik. Zazpi haur baditu eta ilobaso bat, Dorothy Drew.

ERROMA, Abendoaaren 27a.

Aita Sanduak adiarazi du Espainiako Karlisteri hekien eginbidea dela leial izatea Espainiako Errege eta Erreginari. Dembora berean Leo XIII-garrenak igorri du bere benedikzioa Cuba-ko soldado espainoleri.

### Hirugarren Atakada

TEHACHAPI, Abend. 28an, 1897.

ADICHKIDE GOYTINO; Milaka barkhamendu galde egiten daitzute; ez nuen uste hoimbete min-hartuko zinduela, zangoko kailluetan finkatuz neure zapataren punta. Mundu gusiak, euekin batean, sinhetsiko dut, zuk erran orduko "Ai," min handia izan beharduzula. Polliki, nahi nuke urthe huntan, 1897an, min gehiago egin gabe, ezarri, zapataren plazan, erhia, erakusteko arras hitz laburres zango batean bezala, bertzean ere baduzula kaillua. Hasten naiz:

Abendoaaren 18an, 1897, Errepublikak famatuaren gobernamentua dogolarik phentsaketa Yainkua ala deubrua duen eskerrak bihurturik utzi, Oklahoman, "Fermin-en" Estaduan, banko batek bankarrot egin du.

Abendoaaren 19an, 1897an, Errepublikanuek beren hitzaren atchikitzea gatik, aphaltu dezete, "Ehailer," hariz, izanagatik ilea ala kotoina, egiten dutenak arropak, berriz erran eta ere,

"Textile" ehaileak, ehuneko hamar beren kontabuduetarik edo soldatetarik.

Hortarakotz badire Boston-eko hiri handian bederatzita mila ehaile daudenak beren soldatakat aphaltuak.

Abendoaaren 20an, 1897an, Errepublikano hitz eder emaile horiek, New Jersey-eko Estaduan, aphaltu daztete "untzi" egiler, egun-eko hama bi eta erdi, beren soldatetarik. Hori bethi beren hitzaren atchikitze. Untzi ile horiek ez dira Madalentraketa ere ez Herritaldeko, bainan ba Murde McKinley-ren suietak.

Abendoaaren 23an, 1897an, Philadelphia-ko hiri ederrean, bi bankok hetsi diuzte beren borthak. Egun hartanbetean, Murde White, Los Angeles-etako Senadorak, ahalge egin arazi dako Murde Wilson, Errepublikano mistroari, zoinak baitu kargoa Estados-Unidos-etako lur guzieren eta laborarien. Bere urtheke erreporta egin duelarik, bere aintzindari handiari, Murde Presidenta, ezarri izan du mundu guzieren aitzinean, ez zela liranyarik hazten Los Angeles-etako alderdietan. Gauza hori mundu guziaz yakin izan du erratak Estados-Unidos-etako minichtro handiak eta harren errana bertze gobernamentu guzietan sinhesten dute. Behartzen izan Demokrat bat yaun horren ahalge egin arazteko, egin duen gachtakeriaz. Hortarik ezagun da zeruabi ignorant aski dela Errepublikano ofizina batean sartzeko, denaz gainean Errepublikanoa ala chakhur horia.

Grekaz eta latinaz orhoitzen zirela, ez dudatzen. Beraz erakutsi nahi zaitut lengoaia horien medioz, Demokraziaren eta Errepublikanismoaren diferentzia. Grekaz, Demokrazia da "Onpukparia," edo "Onpous" zeina baita "Populus." Latinez Republika da, Respublika" Res, afera edo gauza bat eta "publica." comuna. Beraz ikhusten duzun bezala, izenak berak aski dire ezagutzeko, zer gauza komunak eta gauza guti balio dutenak direla "Errepublikan." MANECH

### Obra on bat

Duela hirur hilabete, gure herritar gazte bat, Mr. Pierre Ithurralde kolpatua izan zen, zango-hezurra hautsirik eta gerroztik hunat gure hiriko ospitalean da.

Ikhuririk muthiko dohakabe horren kondizioa, sombeit arima on intresatu dire harren alde eta deliberatu dute eske baten egitea herritar kolpatuaren fagoretan. Manera berezi batez, errekomendatzen dugu Eskualdun kolpatu hori bihotz oneko yende guzieren.

Mr. Andres Berecochea, gure hirikoak, onhetsi du pharte hartzea obra eder hortan eta harren eskuetaratu yonan dire erriarentzat biltzen diren sos guziaz. Beraz, herritar karitatosak, badakizue nori helaraz zuen karitate.

Bertze alde, hilabetean behin gure berrikerariak argitaraziko ditu herritar yenerosen izenak bildu somarekin.

### Naturalisazionea.

Naturalisatzeko, presuna batek behar du bertz urthez gure Erresuman bizi eta lehen paperak hartu bi urthe naturalisatu izan baino lehen.

Ameriketarat 18 urtheak bethegabe yin presunak naturalisatzen ahal dire bertz garen urthea akhabatu orduko, lehen eta azken paperak dembora berean hartuz.

Emaztekiak ere naturalisatzen ahal dire.

Lehen paperak hartzen ahal dire Estados-Unidos-eratik yin pundutik.



Gure hiriko uraren konpaniak. (Los Angeles City Water Co.) emaiten du abisu hau: Arregatzeko edo baratzten bustitzeko orenak izanen dire: Goizetan: 6 orenetarik 8 orenetarat Arratsetan: 6 orenetarik 8 orenetarat Tenore horietarik kampo arrosatzen dugnak punitua izanen da berehala ura geldituz edo betaz. Berriz ura izaiteko beharko du 2 peso pagatu amanda edo multa gisa

### Dr. Gomez

Midikua, Chirurgianoa eta erditzailea. Paris-en eta Madrillen errezebitua

Okupatzen da, manera berezi batez, emakumen eritasunez

Badu 20 urthe Midiku dela.

Erien tenoreak Bederatzietarik lauetaraino

Ofizinak eta bizitegia: 418-S.HI karrikan Telefona: Main 1156 Los Angeles, Cal.

### No.Ta.Bac 50 Sose, tan.

Erremedio horrek sendatzen du tabakoaren bizioa: gizon flakoak azkartzen ditu. 50 soso-peso bat--Botikarioa guzietan. 252

### Tabakoak bizia yohan du khearekin.

Nahi baduzu tabakoaren bizioa galdu har zazu erremedio berria "NoTa-Bac" zoinak egiten baititu mirakuluak. Botikario guzietan erosten ahal da, 50 sos edo peso bat--Sendatzea garantitua da

Galda: Sterling Remedy Co. Chicago edo New York. 253

### Ostatu frantsesa.

APHAIRUAK 25 eta 50 SOS YATEKO HAUTAK.

H.FLETCHER,.....Yabea.

J. Clarke-n bertze aldean. Sishop Creak. Inyo Co. Cal

DR. A. LE DOUX

### Societate Frantseseko Midikua.

Ofizina, 127 N. Main karrika. Gamibar

4a eta 6a-McDonald Block.

Telefona,235.

ERIEN TENOREAK:-10 etarik eguardirano: 2 etarik 4 eraino eta 7 etarik 9 eraino.

-10 etarik 12 etarat- etarik 8 etarat.

BIZITEGIA:-1607 Grand Ave-Tel

### Urthatsetako Presentak Blanchard

Potreta-tiratzailak

\$1.00, \$1.50, \$2.00, \$2.50

DOZENA

Orai da dembora harren ikhusterat yoaiteko. Zathozte beraz berehala Phestetako demboran present bat eginen DUGU 1.50 edo gorako ordrekin

Plaza Gallery, 513 N. Main Karrika

Los Angeles.....Cal

### ARTZAINERI.

Mr. F. Eyraud-ek abisatzen ditu artzain-nausiak badituela saltzeko sasoin huntan

AHARI MERINOAK izaitea ahal diren finenak eta ederrean.

Ahari aipatu horiek Redondon dire eta erosleak yuaiten ahal dire harat animalen hautatzerat.

Prezioak arras aphaltu dire Yabearen adreza:-

FRANK EYRAUD

### Rob. R. Garrett & Co.

Telefona No. 75

Ehortzaileak

Balsamatzaileak

Frantses Zoietaco Ehortzaileak

330 N. MAIN KARRIKA

LOS ANGELES

### NEW Lake House.

Ostatu Eskualduna.

Madame D. A. Bayle,

Etcheko-anderia

San Fernando Karrika, (Damas Avenue ondoan) San Jose Cal.

Kamera onak eta kozina hauta. Lekhu ederra eta familiendako toki superra.

Aphairuak: 50c.- tenore guzietz Karro elektrikak, depot-ik heldu dreetche aitzinerat.

### ABISU BERRIA

Eskua artzain guzieren yakina razten dut zainduko ditudale arditeroak urthe guzian \$3,50 buruko eta toroak ez badira garbiak eta estatu onean, ez tute pagatzeko obligazionerik izanen. Aski nute tenorean abisatzea behar dituztelarik, on regatuko ditut 40 millaren inguruan eta gisa berean, toroak desokupatzen direlarik, yoanen naiz bilha, galdegiten nuten tokirat.

JUAN BIDART,

Sweet Water,

Esmeralda Co. Nevada.

### J. B. Cohn.

Arropa saltzailea, zapatak, eta artzainek behar dituzten puska guziaz.

301-303-305 N. Los Angeles St. Los Angeles California.

California.

Artzain eskualdune tienda

### A. C. Colsh

ASURAMENDUAK

Suarentzat,

Biziarentzat eta

Malurentzat

Lur saltzailea

147 S. Broadway karrika,

Telefona 920 Los Angeles

### MARITONIA Ostatu Eskualduna.

JUAN POCO, Yabea.

506 N. Alameda Karrika,

Los Angeles.

Gure hiriko etche eskualdun ezagutuena. Gamera ederrak eta mahain hoberena.

Pierre-qui-Viro O.S.B

ERREMEDIOA.

-EGINA-

Aita Beneditanoez, Sacred Heart

Mission, Indian Ter.

Erremedio hori asmatua izan da

Frantziako Benediktino batez

duela sombeit mende eta

erakusterat eman du zer berthute

handiak dituen. Sendatzen ditu

pikoak, chaukrezko eritasunak,

hanturak, trunpiloak, sukhar

minak, buru-laruko minak, negala

eta bertze laruko min kasik guziaz.

### Prezio: 50 sos.

Erremedio balios horren saltzetik

atheratzen diren diruak chahutzen

dire Indioen evangelisatzen.

Galda erremedioa:

R. F. SUPERIOR,

Sacred Heart Mission,

Oklahoma Tor.

ISAIAS W. HELLMAN Presidenta HERMAN W. HELLMAN Vice-Presidenta. HENRY J. FLEISHMAN, Kajiroa GUSTAVE, HELMANN, ...Asst Kajiroa

## The Farmers' and Merchants' Bank of Los Angeles Cal.

Kapital pagatua.....\$500,000.00  
Soberakina eta profituak.....\$835,000.00

### Burdinezko Kajonak Errentatzen Dituzte

Abendoaaren 31an 1896an. Banko hortan baziren 4 milio 418 mila eta 900 peso pausatua. Erran gabe doha da gure hiriko Banko handiena eta azkarrena dela.

## LA MARIPOSA

establitua 1870an.

### Epizeria hoberenak, Probisioneak herrikoak eta estranyerakoak

### JAMEN CASTRUCCIO

134-136 N. Main Karrika.....Los Angeles Cal.

Ekharrarazten du estranyeretik eta hemen saltzen olio ezti purra;

Castruccio anayak egina Italian. 522

### Schiffman Method Dental Co.

Schiffman Horzt-Atheratzailea.

hambara 22-26raino Schumaker Blk. 107 N. Spring karrika, Los Angeles.

Bortz erienak bethetzen ditu edo atheratzen sofrikarioak gabe.

Hortx faltsuak entolatzen ditu, hain ongi non ez baitre egiazkoetarik ezagutzen ahal.

Dr. Schiffman da hortz-atheratzaile famatuena Californian. Badu sekretu bat hortzen atheratzeko sofriarazi gabe.



### LAGUNDU BEHAR DA HERRIKO INDUSTRIA.


## Maier eta Zobelein-en. Zerbezeriak.

Egiten du Californiako zerbeza hoberena.

Zerbeza barriketean edo botoiletan.

Saltzen da gure hiriko kantina gehienetan

444 Aliso karrika. Los Angeles California.



-Larruzko arropa-

### W. H. Hoegge

Karpak, artzain kampoetako estalgiak, artzain arropa olioztatua.

Ulezko arropak, artzam-ohen estalgiak.

Ihiziko arropak, larruzko beztimenduak, hamakak.

136 South Main karrika TELEFONA.....MAIN 658 Los Angeles.....California

-Portret tiratzailea-



Medaila bat izana Chicago-ko Exposizionean 1893an. Lehen premioa San Francisco-ko Exposizionean 1894an

Premio handienak Exposizionen guzietan bere fotografiantzat. Telephone Red 862 107 N. Spring karrika Los Angeles.



## Erroma eta Jerusalem.

(Martin Ducq, Hazparenko aphez misionestaz moldatua.)

Bigarren Pharte

Palestina edo lekhu Sainduak.

XXV.

BETHLEEM

Nahiz eliza ederrena chizmatikoen eskuetan den, oraino zerbait gehiago nahi lukete. Berriki, ari zelarik fraide frantchichkano bat jatsarekin garbitzen katolikoen toki bat chizmatiko bat jin zitzaion hura ere jata batekin, erranez frantchichkanoari garbitzen lagunduko zuela. Baitzakien arras ongi frantchichkanoak ondoko egunetan jinen zitzaiola chizmatikoa erraiterat lekhu hura berriki harrek garbitua zela, beraz harena zuela, jua zadin handik, etzen sendimendu bereko izan frantchichkanoa. Chilitucha jo zuen bere lagun bilarazteko; oren onean, egun hetan baziren auzo komentuetako fraide batzu Bethleemerat jinak. Frantchichkano hau guziak jua ziren bere laguneren alde, eta nola dretchoa baitugu ohoin baten ihes emaitako, frantchichkano horiek frogatu zuten chizmatikoen hek baino azkarrago zirela, eta chizmatikoak itzuli behar izan ziren jin bidez beren egonlekhura. Ez da lehen aldikotz orduan gerthatu chizmatikoak liphizta asmatzea katolikoek kontra. Hortik Turkiak badauzka bethi bi soldado, chizmatikoek ebatsi eliza borthan, bertzea eliza barnean, katolikoek elizatik hurbil. Barneko soldado hori, aski hitski bezti, eta espartin suerte batzu zangoetan, han zagon eneatua, akhitua, begira noiz jinen zen haren plazan egon behar zen soldadoa, hau jitearekin, ererik kampionat jauiteko. Erran dudan ichtorio hortatik ezagutzen dugu soldado horien beharra badela bakean atchikarazteko chimaztikoak.

Bainan goazio orai Jesus Haurri ongi-ethorri egiterat. Zertako dago Salbatzailea establia pobre hortan? Ez, othe zen Davit erregearen arrazatik, eta ez othe ziren Bethleemdarren haren ahaideak, Davitenak bezala? Eta bizkitartean Bethleemabarrek ez dute nahi izan Jainko Gizon hori bortha ideki eta atherbea eman: "In propia venit, et sui sum non receperunt". Etzen batenztat lekburik, ez baten aita amentzat: "non erat (...) locus in diversorio." Egia da, Bethleemgo hiria barat beren izenak ean Josepek bezala emaitako jinak ziren jende bez thea zen, bainan uste izan balute Bethleemdarrek onth Maria. Josepe eta sorthu behar zen Jesus Haurrarekin, khausituko zuten bai lekhu: aberatsentzat bethi khausitzen da lekhu, bainan behar itchura baitzuten, orok erraiten zioten: "Ez da lekburik!". Guhaurek ere menturaz gauza bera erraita dugu eskale edo jende behar hari! Errech da erraita "Jainkoak lagun zaitzala!". Ahal badugu, guk ere behar dugu beharra lagundu. Etzen beraz haienztat lekburik! Juan behar izan ziren establia edo lur-zilbo pobre batetarat. Hara non sortzen den Zeru-Lurren Kreatzailea. Mundu huntako urbe-toien jabea, probeziarik handianean sorthuko da, guri maitharazteko pobrezi azko berthutea. Mundu guzia bakean zen demboran gizonak pausuan lo zaudelarik, bakezko Errege hori sorthu zen gauaren erditan.

Jesusen sorlekhu establiaren nola zolan eta buruan da. Ama Birjinak hartu zuen maiteki besoetan bere Haurra eta Jainkoa; trochetan ezarri zuen eta pausatua haratchago zen aberen aska batean; han ikhusten da aska harria; harriaskaren gainean zen zura Erroman da, Ama Birjinaren elizan, eta zuraska harren aintzinean eman dut meza, jadanik errana dudan bezala. Erromaz mintzatzean.

Bainan negu-bihotza baitzen eta haur dibinoa hotzez ikharetan baitzagon, uste izaiteko da su puchka bat san Josepek egin zuela Hauraren berotzeko; etzaut iduritzen harगतिक solaimendu handirik hartu zuela hala ere Jainko Gizon eginak. Ezen, ez da han khearen kampionat uzteko biderik. Nesarioki kheaz behar zen barne hura guzia hartu izan: hortik ere pairamena edo sofrarioa Jesus Haurarentzat.

Tradizioneak hemen agerazten ditu bi alimale ezti, zoinak hurbildurik, Jesus berotzen baitzuten beren hatsaz. Isaias profetak erran zuen zazpi bat ehun urthe lehenago: Ezagutu du idiak bere jabea eta astoak bere Nagusiaren heia. Alimalek ezagutzen zuten Haur hori beren Jainkotzat, erran ahal baditake, bainan adimendua duten gizonek etzuten nahi izan ezagutu. "Cognovit bos possessorem suum, et asinus (...) praepe Domini sui; Israel sitem me non intellexit!" Bizkitartean, Jainko-Gizon eginak khausitu zituen populu eskergabeko hortan zombait adoratzaille. Aingeru bat bet betean agertu zen gau erditan beren arthaldearen zain zauden artzain batzuer, eta Jainkoaren argi distian miragarri batek inguratu zituen, eta izialdura handi batek izitu zituen. Eta erran zioten Aingeruak: "Etzieztela izi; ezen huna non ekhartzen dautzuetan bozkario handi baten berri ona, izanen dena populu guziarentzat: sorthu zautzuela egun Daviten hirian Salbatzailea, zoina baita Kristo Jauna. Eta hau izanen da zuentzat seinalea: khausituko duzue Haur bat chatharrez inguratua, eta ezarria aska batean." Eta ordu berean hola mintzo zen Aingeruarekin hasi ziren zerutikako Aingeru aralda handi bat khanta errepikotan ziotela Jainkoa laudatuz: "Loria zeru gorenetan Jainkoari, eta lurrean bakhea borondate oneko gizoner." Khanturik miragarriena hola khantatua ondoan, Aingeruak urrundu ziren eta jua zerurat edo hobeki Jesusen establiat, zeru berri baterat bezala. Orduan hasi ziren artzainak elgarraren susatzen; erranez: Goazin Bethleemeraino, eta ikhus dezagun gerthatu izan den gauza hau, zoina Jaunak ezagutarazi baitarauku. Juan ziren beraz artzain dohatsu horiek lehiatuki Bethleemeko alderat. Artzain horien herria ikhusi dut. Bethleemetik aski hurbil da; bainan ardi alhatzeko lekhu puska bat urrunago behar zen izan, heien herritik beherago ageri diren landa handietan.

Patarra gora jin behar izan ziren beraz oren erdi batez edo gehiagoz. Gero beren herriratzearrekin bidea alde zuten Bethleemerat jaustean. Bainan guti zitzaienten bidean akhitzea khausitzen bazuten Jainko Salbatzailea. Etziren alferretan ibili: Establia pobre batean aurkitu zituzten Maria eta Josepe, eta Haur sorthu berria, ezarria aberen jan aska edo othelako batean.

(Segitzekotan)

## Hotel des Pyrenees

J.Ordoqui eta semea  
Nausiak

800 Allso-Karrika Alameda-ko Izkinan

Herriko eskualdun etche zaharrena

Errebota, ostatua, kantina

Kambara ederrak

Herritarrek bethi untsa tratatuac dire

## HOTEL D'EUROPE

Ostatu Eskualduna

F. Clavere eta P. Gouialhardou

Yabeak

Arno, zerbeza eta likur hoberenak

Kozina Frantssea.

Kambara ederrak eta garbiak

Commercial eta Los Angeles  
karriken iskinan,  
LOS ANGELES

## Buena Vista House

Ostatu Eskualduna

D. LARRONDE, Nausia

515 New High Karrika

Yanhari sanoa arno hauta, ohe onac.

Eskualdunen bilkura

## Eskualdun Ostatua

312 - Aliso karrika - 312

Domingo Hiriart, Nausia

Kozina frantsesa, arno ona, kambara  
garbiak

Los Angeles, Cal

## Hotel de Bayonne

Frank Loge, nausia

504 - Commercial Karrika - 504

Los Angeles, Cal

Eskualdunen bilkhura.

Lekhu garbia eta ederra

## Hotel d'Europe

No. 459 BORTZARREN KARRIKA

1 ETA J artean

San Diego, Cala.

Direkzione Berria

Kambara ederrak eta garbiak.

Yateko hoberena

Pascal ETCHEVERRY, Nausia

## Eugene Daney

San Diego-ko Abocat Hoherena.

Mintzo da Frantses eta Españolez.

Ofizina: 5th. street

San Diego

## J.F. Yparraguirre

1312 Powell Karrika, San Francisco

Eskualdunen bilkhura. Herritarrek  
bethi ongui tratatuac dire.

## NEW Lake House.

Ostatu Eskualduna

Madame D. A. Bayle,  
Etcheke-anderia.

San Fernando Karrika,  
(Damas Avenue ondoan) San Jose, Cal.

Kambrea onak eta kozina hauta. Lekhu  
ederra eta familiendako toki superra.  
Aphairuak: 50c.-tenore guziez.  
Karro elektrikak, depotik heldui  
dreethce aitzinerat.

DRS. KEENE BLAKESLEE AND CO.

## POWELL DISPENSARY

Finkatua 236 1-2, S. Spring Karrika  
LOS ANGELES, CAL.

Midiku ezagutu horiek kontsultatzen dute urririk eta erraiten dute eritasuna galde bat egin gabe. Emaiten dituzte ere medezina guziak beren ofizinan eta hola salbatzen dituzte botikarioaren gastuak. Dr. Blakeslee horrek irakhusten ahal ditu zertifikatak emanak. Kosta huntan sendatu dituen presunez eta eginak bankeroez eta negoziotako gizonez. Bisita zazue hekien ofizino eta ikhus zertifikat horiek.

Midiku yakintsuna  
chirurgiano abiba sendatzaile famatua. Zure  
adichkide hoherena.  
Munduaren ongi-  
egilea. Bethikotz he-  
men finkatua. Ikhus  
zazue egun.



Sendatzen ditu rupturak  
fisurak fistulak eta hertzee-  
tako minak erre gabe edo  
pikatu gabe, sofririkarik  
gabe eta batera ohien paratu  
gabe. Sendatzen ditu erita-  
sun sekretu guziak, indarra-  
ren galtzea, apermatorrea,  
syphilis, chankrea, etc.

Katarraren Sendatzeko doktor hoherenak mendel-aldean.  
Sendatzaile zaharrak eksperimentia handia dutena eta zoinak tratatzen baitute abantail handi batekin zuzurteko eta bulharretako eritasun guziak, chankrea, pilak, fistulak eta urratzeak.

\$1,000 Errekonpentsa sendatzen ahal ez duten kasu bakhotcharentzat heiek tratatu ondoan eta hekien preskripzioeak segitzen direlarik.

BEGIA- Begiaren eritasun kasta guziak bichta laburra eta luzea, bichtaren flakatasuna, begi akrofulosak, begi-espainen eritasuna, begi-makurrak, bilho basak, begiko mintzara, bekhainetako minak, begiapalako chankrea, etc.

BEHARRIA-Katarraren gohortasuna, beharriko harrabotsak, athabularen gohortzea eta loditzea, beharriko mina, beharriko materia, etc.

BURUA-Neuralgia, buruko mina, zainen mina, burzora, memorioaren galtzea, choratzea, muinetako eritasuna, bozaren galtzea, sukarraren trapatzea.

ZINTZURRA-Zintzurteko mina, katarraren edo eritasun tzarren ondorioa, faringiti segidakoa, aha barneko minak, bozaren galtzea, zintzuraren tapatzea, etc.

BULHARRAK-Lehen eta bigarren hoineko konsompsienea odol bothatzen, bulharretako mina, eztl idorra edo gizona, bizkarreko doloreak, hatsa ezin-hartua, asma, etc.

BIHOTZA-Bihotzeko mina, bihotzaren ttipitzea edo gizentzea, bihotzeko errumatima, foltsu tcharra, etc.

ESTOMAK-Dispepsia, katarraren, minaren edo doloren ondorioa, ezin iretsia, yan ondoko doloreak, bihotz-erretzeak, etc.

GIBELAK-Gibeletako eritasun guziak, aplina, hertzetako oninak, beheitiko segidakoa, gilchurrinetako eta pichuntziko eritasunak, zainetako minak, erumatima eta larruaren minak, ekzema, marranta, hezurretako minak, min zaharrak, sukarminak, bizkar-hezuraren mina, zainetako sofririkarioak, arratzea, fitzulak, uzukio mina zoinak sofririkarioak emaiten baititu bizkarrean.

PARTIDAK-Eritasun sekretu guziak, sqermatorrea, eauazko eta egunazka galtzea zoinak, ez balinbadire ongi tratatuak, ekhartzen baitute zaintako irritazionea, memorioaren galtzea, muinen galtzea, chochoheria, errotasuna, etc., syphilisa picha ezin atchikia, indarraren eta nahieren galtzea, esterilitatea, prostatorrea, harria, varikozela, sendatua operazione berri batez, hidrozela, membroen edo partiden flakatzea.

RUPTURES-Hemorroidea, fistules, varicèle, hydrocèle et toutes enfures et douleurs gueries in mediatement sans douleur ou abatention des affaires, etc.

DAMES-Qui aufferent de quelques maladies particulieres à leur sexe comune, a aldetete persistent, menstruation penible, déplacements, etc., ne doivent pas desespérer même si elles ont échoué dana tous leurs efloris pour obtenir la guérison. Nous sommes heureux de déclarer que nous avons guéri certains cas que les médecins avaient déclarés sans espoir. Charges modérées et à la portée de tout le monde.

REMEDES- Les remèdes usés dans ce dispensaire sont connu seulement de nous et nous proviennent en héritage de nos illustres ancetres, à travers plusieurs générations de lumières dans la profession médicale que le monde ait connu; et à ces precieux trésors de la science, nous avons ajouté le résultat de plusieurs années de travail et de recherches et maintenant nous croyons pouvoir guérir tous les cas curables et de pouvoir soulager grandemen tous ceux qui n'ont reçu aucun soulagement jusqu'à ce jour.

CAS NON-EXPOSÉS ET SECRETS. Le nom du patient est strictement confidentiel. Toutes les références qu'on peut exiger fournies à notre bureau. Je me présente sur mon métier j'apprécie ma réputation. Les personnes qui me consultent ne sont pas conficés à un amateur-substitut mais reçoivent mes soins personnels. Consultations toujours gratuites et je traite les pauvres gratuitement, croyant que c'est mon devoir envers l'humanité souffrante.

Les patients vivant à la campagne et qui ne peuvent venir en ville peuvent décrire leurs troubles, par lettre et peuvent avoir les médecines envoyées gratuitement pour observation à n'importe quel endroit de la Côte du Pacifique.

Heuree d'office: 9 heures du matin à 9 heures du noir. Apportez ce papier avec nous et adressez toutes vos lettres aux.

POWELL DIMPENSARY

236 S. Spring street, Los Angeles

## Frantses Ardi Merinos Finenak.

WOODSIDE

STOCK

FARM

Wilsons

Brothers,

Nausiak.



Odol Purreko

Frantses

ARDI MERINOEN

Kroatzailea eta

Kanpotik ekhar


raztailea.

Gure toro gasten aita Rambonillet-etik yin marro finak dire.

Newman - Stanislaus Co., - Calif.

1854. Negozioko etche zagarrrena Los Angeles-etan 1854.

## SAMUEL C. FOY,



---SILLAK ETA GARNIZIONEAK---

Sillak, Azoteak, Kollierak, eta Arropak.

315-N. Los Angeles karrika,

Los Angeles.



**CHEMIN DE FERREN ARRIBAT-  
CEKO eta PARTITCEKO ORENAK**

PARTITCEN CERREAT	LEKUYA	ARRIBATCEN
2:00 p. m.	Colton	12:20 p. m.
2:30 p. m.	Colton	10:00 a. m.
5:25 p. m.	Colton	9:15 a. m.
2:00 p. m.	Deming / Express	12:20 p. m.
2:00 p. m.	& East / Emigrant	12:20 a. m.
2:00 p. m.	El Paso & East	12:20 p. m.
12:50 p. m.	San Fran'co / Expr	1:30 p. m.
12:50 a. m.	or Sacramto / Eto't	1:30 p. m.
*9:20 a. m.	S. Ana & Anaheim	*1:50 p. m.
3:15 p. m.	S. Ana & Anaheim	8:30 a. m.
9:30 a. m.	Santa Monica	8:15 a. m.
*4:30 a. m.	Santa Monica	*4:00 p. m.
7:50 p. m.	Santa Monica	4:50 p. m.
10:00 a. m.	Wilmington	2:20 p. m.
4:00 p. m.	Wilmington	9:00 a. m.
10:00 a. m.	San Pedro	2:20 p. m.
4:00 p. m.	San Pedro	9:00 a. m.

\*Igardetan salvu †Igardetan besik

**Shori Histuyak.**

Gure adisquide Leonis pleituyan ari sauku carraskan bere mahastico itali-anuarekin.

Lehenik Miguelek demandatu du italianua bere arquila sariaren dako, bainan italianuak ikhushi duelarik. Miguelek afisone handia duela pleituyan artcias, berris hak demandatu du Miguel \$100 malurandako, Miguelek 500 arbola picaturik.

"Pleito ganando, dinero gastando. Capricho pasando".

Emasu hor Miguel! Cer behar guinuke huk avocatek eguin su gabe? Hil.

Nouvelle Orleaneko loterian numero hok idasi dute: No. 69,255, \$150,000; No. 14,928, \$50,000; No. 51,794, \$20,000; Nos. 82,378 eta 85,966 baco-tchak \$10,000; eta Nos. 20,195 eta 37,865, 57,399, eta 72,567 bacotchak \$5,000. Beste numero tipiac guero yakien tugu. Hok numero handienak dira.

Antonio Repetton testamenta hautci nahis ari da Timoteo Repetto deitsenden bat. Repetto saharan semia dela nahi du poroatu eta testamenta eguin sielarik etcan guela ser eguiten sien.

Bigarren aldia dute ya eseatcen direla. Nic uste oraicuan ere estuten deusik atherako, avocatek salvu. Italiatik arribatuta berehala Repetok salcen ahal suen bere Aranchua \$150,000tan. Hobe suken eguin balu ceren orai estu biciki isanen askenian. Oraino hastiada. Finitcia guero ikhusico.

Alisoko carrican eseatugo dira cable chemin de fer horen sartcera. Eguiten badute propietatek valore guehiago isanen dute. Orai da dem-bora Frances eta Escualdun capitalist horiendaca. Certako es esea egostea presenteko saldisko carrito horren? Idasi ona eman lio.

Penarekin aitcen dugu gure adisquide Piarres Itchasou eri dela. Espero dugu hobekitukoden.

Gazeta honen eguilean amatchi ere Mme. Marie Larceval eri egonda, bainan orai hobeki da. Lamburian abiatu-yada segurik.

Juan Salaberri herrian sen egun hotan. Emastia erri carrhi du. Desiratcen dugu hobekituco den dembora handirik gabe.

Bastanchury ere herrian sen egun hotan besotic mines yina. Cerbit ulik ausiki du, bainan hobeki da orai.

D. Amestoy ere herrian sen Repetton-dako testigo yina. Avantaile bat badu Domingok, Repetto hildenak testameta igorri dako orai direla sombeit egun eta aranchuak eta oro utci disko. Orai debruyak yuantu Martin Talo eta Betri. Orai campoat behar omen dute athera aranchotik; orai Domingo patron.

Ser nahi dusi ba, aberatxan suertia da!

**Depechak.**

Deming, Dec. 23.

Yuanden larunbatian apatchek lau soldado hil isan tuste, eta dotcena bat colpatu. Soldaduek estute apatcherik hil isan.

Paris, Dec. 23.

Guerlako untci "Chamois" isena duen bat chinarat yuhan delarik galdu isan da bere yende gusiekin.

Paris, Dec. 23.

Franciak eta Madagascarek bakia eguin dute. Francia yartcen da Madagascaren governor.

London, Dec. 23.

Espanol republicanok bildu isan omen dira ikhusteco hea cerbit plan eguiten ahal duten Angleterran contra.

Venice, Dec. 23.

50 badira hemen colerarekin. Yende gusia ari da ihes yuaiten.

Austriaco gobernuyak manatu du eri gusien kuarantinacia.

Madrid, Dec. 23.

Americano ministro nombratu berria erreinaren ikhusten isan da bere pape-ren erakhusteko.

Edinburg, Dec. 24.

Hemengo urhe minarik handiena egun shahutu da. Sombeit frikunek dinamita botatu du barnerat eta 800 edo mila guison hil dira minaren barnian.

Philadelphia, Dec. 24.

Egun gure mina handienetarik bat hemengo erriarik haundienak arruinatu du. Erriua beste urthes baino handio. isan da eta mina ures bethe da eta minaren barnian ciren yende gusiak barnian harrapatu ditu. Badira lau pompa ur atheratcen ari dienak. Minutan 200,000 galon ur atheratcen dute. Uste dute 400 yende segurik badiren aspian ithuak. Ehun bat bada salvaturik. Herri gusia nahasia da. Galduyak diren guisonen emastiak bere haurekin badira edo-soinen bihotcaren hausteko aski.

Jacksonville, Flor., Dec. 20.

Hemengo tiendarik handienian su lothu da eta saspi edo sortci magasin erre isan dira. Malura \$450,000. Aseguransa, \$350,000.

Londres, Dec. 20.

Angleterrako Prinsa hil nahi isan dute bi senarr emastek seren prinsak espeit-suyen sosik eman nahi hek galdeguin eta. Preso dira.

**Explosionia**

San Francisco, Dec. 17.

Cargako chemin de fer bat bidetik athearik petrolesco tina bat yodu eta su hartu du. Bi guison erre isan dira. Malura, \$6,000.

Placerville, Cal., Dec. 17

Herri huntako comerciantik handienak bildu isan dira eta societateat formatu dute chinuen herri huntarik igorseko. Frango Chino badira ya abiatuyak prestatcen muitceko beste noapit.

Panama, Dec. 20.

Tempesta batek egun sei belasko untshi shehatu ditu eta yendiak oro galdu isan dira.

San Francisco, Dec. 19.

O'Donnell isena duen medicu batek hemen egun erecebitu ditu bi paketa "dynamite" isena din polvoia hortas betherik. Paketak idekitcian lehartuko siren maneran arrenyatu-yak ciren, bainan ideki baino lehen paketak urian sartu ditu eta trempatu. Dudarik gabe serbit esperantca suen. O'Donnell, chinuen contrario horietarik da.

EUGENE PIERRET.

FRANCES BOLANYERA,

— 221 —

RUE COMMERCIAL

Jose Oleachea

RUE PREMIERE

ESCUALDUN

BOLANYERA

Oguia Escualdun guisan eguiten dut hemen saiste hunat!

**M.V. Biscailuz,  
ESCUALDUN AVOCATA,**

72 Temple Block.

**J. Brousseau**

**AVOCATA**

56 Baker Block

Classel, Smith & Patton,

**AVOCATAK,**

93 Temple Block

Dr. H. NADEAU,

FRANCES \* \* \* MEDICUA

McDonald Block

DR. J. KURTZ  
MEDIKUA

Kingsley, Barnes & Co.

20 NORTH SPRING

Imprimatcaliak

Imprimako lan clase gusietarik eguiten dugu eta nehorrek baino merkiago.

**B.F. COULTER,**

HOLLENBECK BLOCK

ARROPA MAGASINA.

Herrian den arroba Magasina handienetarik bat eta merkena

### Emaste eta Gison.

Suec Escualdunec estakisie sombat emaste separatcen den beren senharren ganic herri huntan. Hilabethe gusies badira hamaretaric hogoietaraino dirurcio herri huntan. Orai duela, hiru hilabethe, asthe bates basiren, Hamasei, hamaseietarie banituyen nihorek, lau. Yuyak dener eman seren dirurciua.

Angelestaco condadua baino notatuyoric esta Ameriketan dirurcioren daco. Es balitz dirursatu, nahi duten emaste horietaric, cer behar ginuke, avocatek egin? Nic estut hilabetheric nun estutan bigaetaric lau dirurcioetaraino hilabethian. Dudaric gabe beste avocac horiec ere badute beren phartia, ceren erregimenduya bada hilabethe gusies.

Egungo egunian igual du es esconduric ere ceren esconduta aste bat gabe separatcen dira.

Hein fite separatcecot hobe du es batere esconduric. Nahi badute elgarrekin bisi, aski dute bisitcia; eta enehatciarekin, orduyan separatcia, batere cortian eraili gabe. Gu, avocaten daco hobe da hanitz isan dain, bainan estonatececo da sombat baden bere senharrrac abundanaten tustenac. Frango aldiz gisonac culpable dira, bainan hamaretaric hameketan, emastekiak dira gaistuenac. Escondu orduco nahi dute aferr bisi, eta ontxa bestitu eta noisian behin campoco belhar berdian yastatu, eta hortaric hildu dira makhur gusiak.

Gison sombeitere badira hein gais (...) Oraico dirurcia bortcetaric lau denac emastec hasiak dira.

Dirurciua sobera aise emaiten dute hemen. Dirurciua eman baino lehen beharlukete bortz testigo bederen isan eta eslitake dirursioric haisu behar esconduta bortz urthe baino lehenago. Egungo egunian emastiari easia puska bat egiten badusu, ymen dira Corterat ausoco 6 edo 7 emasteki yuramentu egitera usticoca eta aiscora ukhaldica etchetic curritu duela bere emastia. Esta erremedioric emastec debriyac molsan tuste. Bi emaste aski dira gison baten seculaco preso sarhasteco.

Articulu hau nahi dut yakin desasien estutala Escualdun emaster dirijitcen; eta hala idurritcen basere, dudaric gabe culpable dira berac ere. Eghia da gison nec ere denec baitugula gure tatchac, bainan esta sinhesten ahal gisonen culpa dela erdietan. Corteco aferec eracusten dute hea gisonac diren dirurcia lehenic galde egiten dutenac a la ez. Esta gero bethi pensatu behar gisonac culpable direla ceren dirurciua ukhaiten duten beren emastec. Sombat Senharr bada seculan espeitute contrarioric egiten demandatuta. Cer balio du? Aldibat gisa hortan hasis geros, hobe du batec apart eta seculaco bakhia. Espalite elgarretaric separa, menturas balitake orai den baino crima eta escandal gehiago familien artian; aldibat makhur hola abiatu gerostic seculan estira bisitcen ahal amodioarekin, bethi isanen da cerbeit lekhitic campo.

Americano eta Irlandes horiec dira gaistuenac. Frances, Italiano, Escualdun eta herrico hoc casi seculan estira menturatcen.

Erreligione Catolicuac ere cerbeit effetu behardu isan. Espalitz erreligione Catolicuarendaco menturas frango balitake liburu bereko fulya segi litiotenac.

Estciestela gero samur ene emaste maiteac ceren eghia erraten dutan, samurtcen basiste suyen buruyac eracusten ditusie. Ah! Yincoaren cashola, nahi nuke emastekia banintz, esnindake bisiki khesha! Espeinis hala ordian. VIVA EMASTEKIAK!

### In Memoriam.

Gure adiskidesena Mr. Pierre Oxandabarat, hilabethe hunen hamarian hil isan da M.P. Balladen etchian. Basuren dembora hanitz eri sela. Berrogoieta hemeretci urthetan hil isan da. Mr. Oxondabarat, Itsasun, sorthua sen eta Californiarat 1849 yina sen Mr. Gaston Oxarat, P. Larronde eta D. Amestoyerekin. Californian suen adiskide saharren eta maitenataric Gaston Oxarat suen. Biec Buenos Ayresetan elgarrekin egonac siren. Ameriketan estu ahiderik nehor utci. Francian baditu bi iloba. Mr. Martin Etchepare utci du bere propietater casu egiteco, leghes administratu arte huntan.

### Vapuresco Saldia.

Compañía bat formatu da asthe huntan hemen hemendic Santa Monicarat chenin de ferraren egiteco. Arras Compañía fierra da eta dembora handiric gabe hasigo dira bidiaren egiten.

Udan, oren erdi gusies yuane (...) Santa Monicarat. Beste Compañiari concursana eginen dacote. Calle San Pedroic abiatugo du. Nic estut ikhusten ahal nola nahi duten carrica hartan bidia egin. Carrica hura hertchiegi da; ya bada chemin de fer bidig bat han eta biendaco esta lekhiric isanen. Carrica hartaco propietaric beharluskete dedecatu eta es utci han pasatcera, ceren carrica dena fundituya isanen da.

### Emaste Descuidatua.

New Yorcaco ondoco herri ttipi batian egun hotan estufaren labiaren barnian, sarthu isan du emaste batec bere lau hilabethetaco haurra, bero egoiteco. Haurra estufan sarthu eta yuan da bere senharrari eratera etcherat yiteco eta emastia shekha yuanden demboran arribatu isan da seharra etchen eta suya pistu isan du afariaren egiteco, eta casuric estu egin labiari, eta haurr gaisua bisiric erre da. Emastiac ikhusi isan du chimineatic hea atheratcen eta berehala yuanda lasterca etcheras hamatuya bainan beranteghi arribatu da senharr, emastiac harritu dira ikhustiarekin bere haurra erria.

Arras hots omen sen egun hartan. Embeldu sen haurraren camporat be-

rarekin athe atceco eta hartaco sarri du estufan. Estufaco suya hila omen sen casic haurra sarri duelarik. Nic estut comrenitcen ahal enola seharrec estuen senditu nigarric erretzen ari selaric haurra. Dudaric gabe campuan sen dembora hartan. Loxione bai isanen da emaste eta nescatuei.

Corte Supremak estu oraino cantineruen liceneien geintan deliberacioneric egin. Estira bisiki presatcen. Hilabethe huntan yakinen omen dugu cer beharco dugin egin.

### Eclipsa.

Iruskiko eclipsa totala isanen da aurtan Burulian. Eclipsa agerico da Atlantico gusian, Africaco frontieraraino. Gubernuko untcietan yuaiten ahal da Africaco pondu hartarat. Eclipsac African iraunen du lau minuta eta erdi. Dembora aski isanen da potretaren atheratececo. Seculan esta oraino isan African Eclipsaric. Lehemisicua da, eta frango gubernuko oficiale eta astronomo yuane dira ikhustera eta experimentatcera. Hemendic sombeit urtheren buruco munduya geines aspi itzulico da. Hobe litake sombeit aldiz seguric.

### Golde Markac.

Orai duela sombeit egun bi Escualdun gau erditan etcheat yuhansirelaric errioco subiaren onduan sugurres hasi dira lurraren iraultcen, bainan lurra estcen aski bustia. Sugurrak hautci tuste. Gauerditan arras lanyeros da subiaren ondo hetan sembratceco.

Trompesatcen dira uste estutelaric. Emasie hor aiticina! Boticariuec ere behar dute sugur plata saldu. Orhoit siste herrico leghiaren contra dela carriken sugurres iraultcia. Golde besic esta haisu; Inaultcecotz iraulasie lurra bat bestiaren geinka eraili gabe. Menturas orai lurra aski guri da segisatie aiticina. Goitiric sugurrac sendo dira. Viva siek!

### Arizonaco Apachiac.

Askenian hasi dira Washingtonen beghien puskhabet arghitzen. Aspaldian beha ginauden hea nois serbeit eginen othe suen Gobernuayak. Ikhus-tearekin yendia kheshatcen hasi dela movimendu serbeiten egiten hasi dira. Hombeste urthe hotan, General Crook isena duen imbecil, cobarde bati beha egon gira orai artian. General Crook aspaldian Arizonan da Gobernuayak nombratuya, Induer gerlaren egiteco, bainan seculan estu deusic egin. Errana da Iudiuen segitceco plasan, berac municiones; fornitcen situela.

General Crookek estu Arizonan egon den dembora gusian erreusitu apachen harrapatcen. Harrapatu baditu estira seculan preso hartuyak isan. Gazetetan bethi bada mila depecha hau eta hura egin duela, bainan seculan estu Apacherik harrapatcen. Orai duela sombeit egun ere, Apachiac casic harrapatu dituela General Crookek sioten Arizo-

naco depechek, bainan estute erraten harrapatu dituela.

Bethi casic. Seculan esta arribatcen hok diren lecurat. Es othe da frango aldiz beldurres egoiten? Esta sinhetcia isaiten ahal hombeste urthe hotan eseatu edo nahi isan balu estcituela apache gehienac casatuyac isanen Arizonatic; bainan berac municioniac eta harmac emanen eta fornitus beren defensasico harma gusies seculan estira gisa hortan Apachiac finituco.

General Crook, cobarde imbecil falsu bat da. Balinbalu bere sortlekhuco lurrarentsat eta bere lurreco yendes urguluric eta batere odolick, eslitake orai arteraraino portatu den gisan seculan porta.

General Crooken plasan sarri godute beste norbeit. Bada beharra eta tenoria da. Sombat familia miserable estira fundituyak eta massacraturic isan bidean suasalirik, imbecil den Crook dela falta? Sombat familia hetaric estu Gen. Crookec berac bere beghis ikhusi? Orduyan certaco esta eseatu Apachen casatcera? General Crook bilkitu sure mantak eta puscak eta sasi vistatic; esteira su mundu huntaco sujetetaco on.

Espero dugu oraico aldiian Gobernuayak sauyatuco duen eta sarrico duen norbeit bere nacionia errepetatcen duena.

### Merkhatuco presiuak.

#### ARDI LARRUYAK

Ile lagurak.....15 eta 30 sos bacotcha

" lusiak..... 75 sos "

Moskinac..... 10 sos "

#### ILIA

Udaaskenekua..... 11 sos libera

Primayeracua.....12 sos "

#### HARAGUIA

Behikia, 1er clase..... 7 sos libera

" 2er " ..... 6 sos "

" 3er " ..... 5 sos "

Ardiak..... 5 sos "

Caponak ..... 6 sos "

Bilochak ..... 8 sos "

Atechiak ..... 9 sos "

Cherriak (bisik)..... 8 sos "

" (hilik) ..... 5 sos "

## A. RAYNAL, Carrosa Egilea

### Eta Arotza



Herrian den carrosa egilen hoberena eta merkena. Hemen esta makinan lanic egiten. denae escus eta lan gusiak garantituyac.

RUE ALAMEDA

#### Galdu eta Harrapatu.

Chas. Whitehead isena duen guison batek harrapatu du bere 9 urteko mutikua bi urteren buruyan. Orai direla bi urte bere emastiak San Franciscan abandonatu sin eta bi hurrekin escapatu sen dembora berian \$3,000 ere eatci siskion. Bi urte hotan guisona burutik auntsu yuana sen bere haurren sheka eta nehundik etcin berririk aiten ahal. Yuanden astian errecibitu du depesha bat Cincinatetik conventuyan usthe dutela behartcen isan haren haurra eta berehala partitu isan da eta harren haura guertatu da. Nescatokua estu yakin nun den oraino es eta ere ama.

Opinionia da beste haurra beste Estado sombeit etan sarria duela es desan aitak trasa. Segur dut placer duela bat harrapatu. Dembora handirik gabe usthe dute bestia ere yakien duten nun den ceren lekhu gusietarat telegrafatuya du.

#### Gobernuko Etchia.

Helduden primaveran egun godu gobernuyak hemen etchebat posta eta gobernuko oficialen dako. Aspaldi eguin beharasen, ceren oraico posta sobera tipiegui da. Esta empleatuyen den itsulceko lekhu ere esta. Eguiten badute herrian den edifisiorik handiena isanen da, ceren esta dudarik beste gobernuko etchen planian eguinen dutela. Posta beharlitake nunbit herriaren erdian eta lekhu hanitzekin. Orai kortia den lekhu beharlitake, orduyan lau aldetarik baluke sartceko lekhu. Presenteko guisan nahi bada letra bat postan sarhi behar da oren bat espero egon, yendia bidetu artian. Hastiagarri da. Eta bastenas ere carrica hartako trotuara hertchieghi da. Behasasie sombat malur guertatcen den pondu hartan bethi carretela eta carituekin. Ochala cambiatuya balitz.

#### Karrikak.

Errana da oraico kontcilu hunek gure herriko carricak behartustela harris arrenyatu:

Balukhete beharra segurik. Munduyan den herririk guielatuyena da Angeleseta. Herri hunek badu 30,000an populacionia orai eta dembora da civilisatceko.

Lehengo Adobesko etchecarak behar dira defasatu. Esperantsa du aurthen kontcilu hunek serbit movimendu eguinen duen gure herriaren pushka bat shushen tceko. Aurthengo urthe huntan estugu gausa handirik eguin, mokoka eta salapartaki besik eskira arisan gure chef de polis eta politica horietas besik.

#### MERKHATU BERRIA

Orai duela sombeit hilabete badu Martin eta Pedro Uharrietek egosi sutela calle Springen etche bat eta hiru edo bortz hilabetheren buruyan saldu suten \$26,000an. Orai Merkhatusya ari dute eguiten. Plana eguina dute beste Merkhaturat pasatceko guisan. Arras propietate baliosa yarriko da orai.

#### Santa Maria.

Placer hartcen dut gure adisquide Bernat Etcheverry (San Diegoko Contea) herrian arribatu dela. Estut usthe samurtuco den ceren San Diegoko Contea deitzen dutan, ceren Cambon nintcelarik titulo hortas aipatuya sen.

Badu sombeit dembora Frantciatik arribatuya de la bainan lehemisiko aldia du herrian isanik Frantciat partitus guerostik.

Frantciat yuantcelarik denek sioten aldeat yuantcela bainan esta posible California hogoi urthe bisia eta onduan Frantcian lakhetuko duela nehok ceren Californian abandonatcen den dembora berian batek bere osagaria, bere fortuna, bere placerak eta bere bisia galtcen tu. Esta erremediorik denak bildu dira guileat. Eta Cambo baino Escual herri propiorik esta munduyan isaiten ahal; han badira comoditate gusietarik beste Escual herrietan estenik. Gazeta hunen eguileak pasatu ditu bi hilabete pasaturic camboco herrian.

Nescato amoroses ere nãusi da Cambo. Basses Pyrenestan den herririk notatuyenetarik bat da bainhuyen dako. Estu balio nik deusik erran desan berdin denek badakisie Cambo cerden. Vina Tauletek!

#### CATEDRALA

Egun Eguarri, secular isan din cantarik ederrenetarik isanen dira Cathedralian. Badira berrogoi bat segurik, guison eta emaste; balio du aitcea yuaitiak. Espasiste yuaiten hutz eguinen dusie ceren halako kantarik esta menturas berris yien hunat.

#### CHRISTMAS

Hiru edo lau egun hotan carricak yendes estaliak dira eta tienda gusiak yendes bethiak. Denak ari dira cadeaux easten beren emaste gueyendako. Urhus dira espeitu uriak aiticina seguitu.

#### Kontceilua.

Yuanden aste hartian herriko kontceilua bildu isan da. Orai ere chef de police propia dugu. Republicano café hotz edale horietarik bat nombratuya isan da. Ikhusiko dugu hea shushen erailiko othe den bestenas beste lehen-guakin besala eguinen dugu. Herritik igorriko dugu:

Zanjero, E.N. Dalton, nombratuya isanda.

Presuneren Chefa, Sam Kutz da. Eungo eguneten guisonaren capasitiatik estu deus balio espada Republicanoa.

Oraico Chef de Policak hitz eman omen du presenteko democrat gusiak campoat behartuela eman ceren democratak diren. Conciluko yaun batsuyek esperantca dute cerbeiten idasteko aurthen bainan Gazeta hunen eguileak guardiatuko ditu eta ikhusiko nun estuten ehasten herriaren sosik. Mayoria dute bainan igual da. Conciluyan espadiot idas publicatuko ditut heren behatuyak publicuak yakin desan cer eta nola eguiten duten.

#### Chino Carrica.

Badu hamar urthe segurik Chino carrica hori ideki nahis ari direla bainan estimatsalek beren arreportia eguiten dutelarik bethi bada norbit contra eguiten duena. Orai ere estimatsalek berris eguin dute arreportia. Orai ikhusiko dugu hea denak content isanen diren. Denek nahi dute idekhiteia bainan carrica hartaco propietariuak berac dira lehemisikuak contra eguiten dutenak, orduyan cer balio du? Certako es utz idekhitcera? Estusic ikhusten propietatiak balio lukhela hanits guehiago. Badira sombeit Escualdun carrica hortan lurak diustenak eta esperantca da estutela contrarik eguinen.

#### Merkhatuco presiuak.

#### ARDI LARRUYAK

Ile lagurak.....15 eta 30 sos bacotcha  
" lusiak..... 75 sos "  
Moskinac..... 10 sos "

#### ILIA

Udaaskenekua..... 71 sos libera  
Primayeracua.....10 sos "

#### HARAGUIA

Behikia, 1er clase..... 7 sos libera  
" 2er " ..... 6 sos "  
" 3er " ..... 5 1/2 sos "

Ardiak..... 5 sos "

Caponak ..... 6 sos "

Bildochak ..... 8 sos "

Atechiak ..... 9 sos "

Cherriak (bisik)..... 3 sos "

" (hilik) ..... 5 sos "

#### Barkhamanduya.

Esperantca dut barkhatuco nusiela oraico aldian eguiten dutan hutces ceren lehemisko aldian esta aise hutsik gabe deusen iguitia. Ene imprimatcailiak catichima gorria ikhusi du Gazeta hunen imprimatcen. Greka baino gais-tuo omen da lenguaya han. Frango sosokeria sari dut oraico aldian, bainan es pensa behar banu seguitu exemplu hau segui nion. Errana da Gazetaren behetseko bethi serbeit sosokeria behar dela. Urthe on!

#### Repetto.

Gazeta huntako artikuluya iskiriatu guerostik ikhusten dut Repetton arantchua saldu isan dela Messrs. Newmark eta Hellmani \$60,000 daco. Orai pleituya finitcen da segur. Beste articuluyan erraten nin Amestoy beharsela nãusi bainan haisia itsuli da guerostik. Casu Betri eta Talo!

#### Hotel Berria.

Chino Filipek lehen presundiasen lekhuayan berrehun mila pesoko Hotela eguin godu, bi carriketan frentatcen duela. Holako etchia eguiten bada beste ondoko lurrek balioko dute doblia. Batere esta goisei isanen eguiten delarik, ceren herriko Hotel gusiak cocarala bethiak dira. Holako Hotel batek ontxa pagalio.

## Vache Freres & Co

Coin commercial at Alameda

## Arno eta Likor

## Martchantak

Herrian den Arno eta

Likor magasinahare-  
nena.

## H. Newmark & Co

NEGOCIANTAK

Ile eta Larru Martchantak.

Preciorik handienak paga-  
teen tuste. Sosa presta-  
teen dute ilen gueinian.